Astialdiko trebakuntzarako
eta suspertze soziokulturalerako

# Bizkaiko Urtxintxa Eskolako ikastaroak

2017-2018

# Ikastaroen **gida**

**Bizkaiko Urtxintxa Eskolan 30 urte baino gehiago daramagu aisialdia balioetan janzten. Bide horretan, kalitatezko trebakuntza eskaintzen dugu garapen tresna gisa.**

Hori lortzeko, 2017-2018 ikasturterako 6 ikastaro luzez eta 12 ikastaro laburrez osaturiko eskaintza luzatzen dizuegu eta jendartearen eraldaketarako eta hazkunde pertsonalerako ahalik eta baliabide gehien proposatu.

**Ikastaro guztiak euskaraz izango dira.**

Telefono mugikorraz QR kode hori eskaneatu eta ikastaroen informazioa zehatza topatuko duzu bertan. Matrikula egiteko aukera ere izango duzu.

bai euskarari | zerbitzua eta lana euskaraz

## Ikastaro luzeak

### Titulazio ofizialak

1. Astialdiko begiralea
2. Astialdiko zuzendaria
3. Jendarte kultur dinamizatzailea

### Urtxintxa Eskolako Tituluak

4. Eraldaketarako pedagogia eta jarduera feministak hezkuntzan: hezkidetza
5. Haurren parte-hartzean murgiltzen
6. Aniztasun Funtzionala aisialdian.

**Kontuan izan:** Trebakuntza saio hauek zuon elkarte, herri zein eskualdeetan aurrera eraman nahi izanez gero gurekin harremanetan jarri: taldea sortu, espazioa lortu eta bertara hurbilduko gara.

## Ikastaro laburrak

### Urtxintxa Eskolako Tituluak

1. Gazteak ere, euskaraz!
2. Zeinu hizkuntzan jolasean
3. Zeinu hizkuntzan etxean
4. Aniztasun funtzionala eta sexualitatea. Hastapenak
5. Jolasteka: jolasaren unibertsoa
6. Zurrumurruak irauli!
7. Aisialdi arduratsua: zentzuz kontsumitzea eta jasangarritasuna
8. Haurrak espazio sortzaile
9. Parte-hartzea ikuspegi feministatik
10. Heldu berriekin euskaraz murgiltzen
11. Gizontasuna eta feminismoa
12. Patioak berramesten: haurren parte hartzea eta hezkidetza ikuspegitik.

Bizkaiko Astialdi eta Suspertze Soziokulturalerako Eskola
Zabalbide 26, behea. 48006 BILBO

BIZKAIKO urtxintxa eskola

matrikulazioa@urtxintxaeskola.eus | 94 432 04 45 | www.urtxintxaeskola.eus

“Zeure beharretara egokitutako **trebakuntza** diseinatzen dugu.”

# Lan-ildoak:

- EUSKARA
- FEMINISMOA
- KULTURARTEKOTASUNA
- ANIZTASUN FUNTZIONALA
- PARTE-HARTZEA
- GAZTERIA
- ELKARTEGINTZA

# Gure proiektu batzuk:

**ERALDATZEN:** Ikastetxeetako DBHko ikasleekin indarkeria sexista prebenitzeko programa (2006tik).

**EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK:** Tailerrak, jolasak... jasotzaileen interes eta beharretara egokitutako euskarazko saio dinamikoak.

**TERTANGAKO ETXEA:** Tertangan (Araba) etxea kudeatzen dugu eta egonaldiak, barnetegiak eta dinamizazio bereziak antolatzen ditugu bertan. Kontsultatu aukerak **www.tertangakoetxea.eus** atarian.

**PROZESU PARTE-HARTZAILEAK:** Haur eta gaztetxoen parte hartze prozesuetan eskarmentua.

# Ikastaro luzeak



## Titulazio ofizialak

**1.** Astialdiko begiralea

**2.** Astialdiko zuzendaria

**3.** Jendarte kultur dinamizatzailea

## Urtxintxa Eskolako Tituluak

**4.** Eraldaketarako pedagogia eta jarduera feministak hezkuntzan: hezkidetza

**5.** Haurren parte-hartzean murgiltzen

**6.** Aniztasun Funtzionala aisialdian

# Astialdiko begiralea

## HELBURUAK

- Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.
- Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.
- Aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.

## EDUKIAK

- Talde dinamikak, Psikologia ebolutiboa, Sexualitatea.
- Inguruaren azterketa, Programazioa.
- Heziketa astialdian, Begirale tipologia.
- Zehar lerroak: Hezkidetza, Kulturartekotasuna, Aniztasun funtzionala.
- Udalekuak eta kanpamenduak, Naturaren pedagogia.
- Euskal Herrian hezten, Jolasak.

## TITULAZIOA

Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulua emango da. Lekuaren arabera Profesionaltasun agiria luzatzeko aukera. Eskatu informazio zehatza.

**1**

## IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko.

**EGUTEGIA**
Urritik maiatzera.

**LEKUA**
Zenbait herritan eskainiko da:
Bilbon, Getxon, Arratian, Lea-Artibain, Durangaldean, Gernikan, Gasteizen...

**PREZIOA**
Informazio zehatza gure webgunean.

**BALDINTZAK**
18 urte beteta izatea praktikak baino lehen.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Astialdiko zuzendaria

**2**

**IKASTAROAREN FITXA**

**IRAUPENA**
200 ordu teoriko eta
120 ordu praktiko.

**EGUTEGIA**
Informazio zehatza
gure webgunean.

**LEKUA**
Informazio zehatza
gure webgunean.

**PREZIOA**
Informazio zehatza
gure webgunean.

**BALDINTZAK**
Astialdiko begirale titulua izatea (Euskal Erkidego Autonomoan ateratakoa).
21 urte beteta izatea.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

## HELBURUAK

- Hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.
- Begirale-taldeak sortzea, eta haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea.

## EDUKIAK

- Errealitatearen analisia: aisialdiaren erabilera haurtzaroan eta gaztaroan, elkartegintza eta boluntarioak, enpresak,...
- Proiektuen planifikazioa, balioen txertapena, ebaluazioa eta memoria.
- Heziketa taldearen osaketa. Legedia.
- Erakundeen kudeaketa eta antolaketa.
- Euskal Herriko haur eta gazteen parte hartzea.
- Boluntariotza eta lan profesionala.
- Baliabide soziokulturalak eta ekipamenduetara bisitak.

## TITULAZIOA

Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulua emango da.

Lekuaren arabera Profesionaltasun agiria luzatzeko aukera.
Eskatu informazio zehatza.

# Jendarte kultur dinamizatzailea

## HELBURUAK

- Jendarteko kultur dinamizatzailearen lana ezagutzea eta edukietan sakontzea.
- Dinamizatzaileen jardueraren kalitatea hobetzeko oinarrizko ezaguera teoriko-praktikoak eskaintzea.
- Nork bere abileziak lantzeaz gain, nork bere elkarte, enpresa edo erakundearen dinamikari astindua emateko tresnak eskuratzea.
- Prestakuntza, hausnarketa, topaketa eta eztabaidarako gunea ahalbidetzea arlo soziokulturalean ari diren profesional zein boluntarioei.

## EDUKIAK

- Jendarte psikologia eta talde dinamika.
- Suspertze soziokulturala.
- Euskal Herriaren marko sozio-politikoa.
- Soziologia eta jendarte aldaketa.
- Partaidetza, elkartegintza, boluntariotza.
- Elkarte baten kudeaketa eta antolaketa.
- Proiektuen diseinua eta ebaluazioa.
- Kolektibo ezberdinekin interbentzioa.
- Jendarte kultur ekipamenduak.

## TITULAZIOA

Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulua emango da.

**3**

## IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
205 ordu teoriko-praktiko eta 200 ordu praktiko.

**EGUTEGIA**
Urritik maiatzera.
Ostegunero arratsaldez
17:00-20:00
eta zenbait larunbat
10:00-14:00 eta 16:00-20:00

**LEKUA**
Bilbo.

**PREZIOA**
220 €

**BALDINTZAK**
21 urte beteta edukitzea.
Elkarte bateko kide aktiboa.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

4

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
80 ordu teoriko eta
20 ordu praktiko.

**EGUTEGIA**
Urritik martxora
Bilbon eta Hernanin.
Urtarriletik ekainera
Gasteizen.
Astelehenero arratsaldez
17:00-20:00
eta zenbait larunbatetan.

**LEKUA**
Zenbait herritan eskainiko da:
Bilbon, Hernanin eta
Gasteizen.

**PREZIOA**
220 €

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Eraldaketarako pedagogia eta jarduera feministak hezkuntzan: Hezkidetza

**Emagin elkartea**rekin elkarlanean

## HELBURUAK

- Hezkuntzan aritzen diren hezitzaile eta agenteekin ikuspegi feminista lantzea.
- Feminismoan lanean ari direnei hezkuntzaren garrantzia azaltzea eta lantzea.
- Hezkuntzaren azterketa eta ikuspegi feminista lantzea.
- Aukera berdintasunaren inguruko neurriak ezagutzea.
- Arlo praktiko eta teorikoaren arteko lotura definitzea.

## EDUKIAK

- Teoria feministaren oinarriak: berdintasun estrategiak, ahalduntzea, ekonomia feminista, militantzia ereduak, indarkeria sexista, autodefentsa feminista eta desboteretze prozesuak, maitasun erromantikoa,...
- Pedagogia feministak eta hezkidetzarako estrategiak: pedagogia eraldatzaileak (korronte desberdinen azterketa), baliabide pedagogiko hezkidetzaileak, espazioen analisi feminista, hizkuntzaren erabilera ez sexista, hezkidetza esperientziak,...
- Proiektuen planifikazioa eta kudeaketa balioen ikuspegitik.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Haurren parte-hartzean murgiltzen

Haur eta gazteei parte hartzeko aukera eta hitza emanez, denontzako errazagoa den errealitatea eraikitzeko estrategiak landuko ditugu.

## HELBURUAK

- Haurren parte-hartzearen inguruko eduki teorikoen hausnarketa egitea.
- Parte-hartze **kontzeptua** argitzea.
- Eragileei eta hezitzaileei haurren parte-hartzea sustatzeko baliabideak eskaintzea eta horretan trebatzea.

## EDUKIAK

- Zer da haurren parte-hartzea?
- Nola landu haurren parte-hartzea?
- Haurren parte-hartzea bultzatzeko baliabideak, tresnak eta teknikak.
- Haurren parte-hartzea sustatzen duten esperientziak.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

5

**IKASTAROAREN FITXA**

**IRAUPENA**
40 ordu.

**EGUTEGIA**
Azarotik urtarrilera.
Ostiral arratsaldea
16:30-20:30
eta larunbatetan
10:00-14:00/15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
160 €

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

6

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
60 ordu guztira.
45 ordu presentzial eta
15 on-line praktiko.

**EGUTEGIA**
Urritik abendura.
Zenbait ostiral arratsaldea
16:30-20.00
eta larunbata 10:00-13:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
175 €
Partaide bakoitzak «Heziketa premia bereziak astialdian» koadernoa jasoko du.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Aniztasun funtzionala aisialdian

**Erdi-presentziala**

## HELBURUAK

- Aisialdi inklusiboan hezitzailearen jarrera aztertzea.
- Heziketa berezian, hausnarketaren eta marko teorikoaren ezagupenari hasiera ematea.
- Behar berezia duten haur eta gazteekin lan egiteko baliabideak eskaintzea.

## EDUKIAK

- Heziketa berezitik aniztasun funtzionalera; terminoak, kontzeptuak, historia, aurrekariak...
- Inklusioa: aisialdiaren garrantzia behar berezia duten haurrentzat.
- Nork du aniztasun funtzionala? Zein jarrera dugu aniztasunen aurrean?
- Sexualitatea.
- Autonomia.
- Jarduera ludikoen egokitzapena: jolasak, kirolak, tailerrak, ipuinak,...
- Adimen Gaitasun handiko pertsonak.
- Elkarte eta ekipamenduetara bisitak.
- Esperientziak gonbidatu ezberdinen ahotik.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Urtxintxa **kidea** *izan*

**Elkarte zein norbanakoentzat.**

*Zatoz! Egin zaitez* ***Urtxintxakide*** *eta busti dezagun mundua Urtxintxaren koloreekin!*

***Abantailak:*** *%25eko deskontua Bizkaiko Urtxintxa Eskolako material eta ikastaroetan, eta Tertangako etxearen alokairuan.*



# Ikastaro laburrak



**Urtxintxa Eskolako Tituluak**

**1.** Gazteak ere, euskaraz!

**2.** Zeinu hizkuntzan jolasean

**3.** Zeinu hizkuntzan etxean

**4.** Aniztasun Funtzionala eta sexualitatea. Hastapenak

**5.** Jolasteka: jolasaren unibertsoa

**6.** Zurrumurruak irauli!

**7.** Aisialdi arduratsua: zentzuz kontsumitzea eta jasangarritasuna

**8.** Haurrak espazio sortzaile

**9.** Parte-hartzea ikuspegi feministatik

**10.** Heldu berriekin euskaraz murgiltzen

**11.** Gizontasuna eta feminismoa

**12.** Patioak berramesten: haurren parte hartzea eta hezkidetza ikuspegitik

# Gazteak ere, euskaraz!

Askotan haurtzaroari agur esaten diotenean, gazteek euskararen erabilera alderatzen dute, honek daukan estigma infantilagatik. Gazteen eredu berriak erdaraz izan ohi direlako. Ikastaro honen bitartez baliabide ezberdinak landuko dira gazteen gune informalak euskaldunak bilakatu daitezen.

## HELBURUAK

- Euskararekiko motibazioa sustatzea gazteen artean.
- Euskararen eremuak zabaltzea.
- Gune informaletan nerabeak euskaraz hitz egitera sustatzea.

## EDUKIAK

- Inguruaren azterketa euskara eta nerabezaroan.
- Euskara sustatzeko teknikak eta estrategiak.
- Gazte eredu ezberdinen hausnarketa.

## NORI ZUZENDUA

Euskaraz bizi nahi eta nahi hori gauzatu ahal izateko trebetasunak garatu nahi dituztenei zuzendua.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

1

## IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Urriak 28, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

2

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Azaroak 11, asteartea.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Zeinu hizkuntzan jolasean

Entzumen Aniztasuna duten pertsonekin jolasteko, Zeinu Hizkuntzako oinarrizko hiztegia eta komunikazio estrategien berri jakiteak asko lagunduko digu!

## HELBURUAK

- Zeinu Hizkuntza erabiltzen dute pertsonekin jolasteko oinarrizko hiztegia jakitea.
- Entzumen Aniztasuna duten pertsonekin komunikatzeko estrategiak lantzea.

## EDUKIAK

- Zer da Entzumen Aniztasuna?
- Komunikazio estrategia ezberdinen berri izan eta aplikatzea.
- Jolasetan eta jolasteko beharrezko suertatu ahal zaigun Zeinu Hizkuntza hiztegia.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Zeinu hizkuntza etxean

**Etxean eta familian erabiltzeko oinarrizko zeinu hizkuntza**

## HELBURUAK

- Zeinu Hizkuntza erabiltzen dute pertsonekin jolasteko oinarrizko hiztegia jakitea.
- Entzumen Aniztasuna duten pertsonekin komunikatzeko estrategiak lantzea.

## EDUKIAK

- Zer da Entzumen Aniztasuna?
- Komunikazio estrategia ezberdinen berri izan eta aplikatzea.
- Etxean eta familian beharrezko suertatu ahal zaigun Zeinu Hizkuntza hiztegia.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

3

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Azaroak 25, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

4

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
12 ordu.

**EGUTEGIA**
Abenduak 1-2.
Ostiral arratsaldea
16:00-20.00
eta larunbata
10:00-14:00 eta 15.30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
60 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Aniztasun funtzionala eta sexualitatea

**Emaize Sexologia Zentro**arekin elkarlanean

**Hastapenak**
«Aniztasun funtzionala aisialdian» ikastaroaren baitan dagoen monografikoa da.

## HELBURUAK

- Hezitzaileon jarreraren inguruko hausnarketa bultzatzea.
- Gaia tratatzeko baliabideak eskaintzea.

## EDUKIAK

- Has gaitezen norberagandik...
- Aurreiritziak.
- Jarrerak.
- Ikuspegiak.
- Sexologiaren sarrera.
- Sexualitateak artatzen .
- Kasuak eta egoerak aztertzen.
- Familiarekin eta beste eragileekin lan egiten.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Jolasteka: Jolasaren unibertsoa

Jolasa mundua ezagutzeko eta ulertzeko modua da haurrarentzat, ikerketa zientifikoaren parekoa. Jolasa arnasa hartzea bezain garratzitsua da. Oinarri honetatik, jolasa haurrarentzat zer den «sentitzetik», gu hezitzaile bezala jolasa zer den «pentsatzera» pasatuko gara. Noski guzti hau, jolastuz.

## HELBURUAK

- Ludopedagogiaren hastapenetan murgiltzea.
- Jolasaren garrantziaz hausnartzea
- Jolasaren erabilera aztertzea.
- Jolastuz, sentitu, pentsatu eta ekin.

## EDUKIAK

- Jolastuz ekitea
- Ludopedagogia
- Jolasaren garrantzia
- Jolasa haurraren ikuspegitik
- Jolasa hezitzailearen ikuspegitik.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

5

**IKASTAROAREN FITXA**

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Abenduak 16, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

6

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
4 ordu.

**EGUTEGIA**
Urtarrilak 20, larunbata.
10:00-14:00

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
25 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Zurrumurruak irauli!

Itxuraz kalterik gabeko hizkera bat dirudiena, ikaragarrizko mina egin dezakeen funtsa zientifikorik gabeko pasartea da zurrumurrua. Gauza jakina da aurreiritzi eta zurrumurruek gizarte bizikidetza nahasten eta zailtzen dutela.

Zurrumurruei buelta emateko prest?

## HELBURUAK

- Migrazioen eta jendarte kulturanitzean errotuta dauden hainbat aurreiritzien aurrean gure buruak kokatzea.
- Jatorri kulturala hizpide hartuta, eguneroko elkarrizketetan zurrumurruei kontrako argudioez erantzuteko gaitasunak eraikitzea.

## EDUKIAK

- Zer da zurrumurrua? Zertan oinarritzen da? Zergatik dira hain indartsuak? Ze dimentsio hartzeko gai dira?
- Zifrak aztertzen.
- Mito faltsuak irauli eta aniztasunean bizitzeko apustua.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Aisialdi arduratsua: zentzuz kontsumitzea eta jasangarritasuna

**Jolas eta Ekin** elkartearekin elkarlanean

Gaur egun, krisi ekologiko baten erdian gaude eta horrek ekartzen dituen ingurumen eta giza ondorioak oso larriak izaten ari dira.

## HELBURUAK

**Kontsumo Arduratsuaren inguruko hausnarketa bultzatzea:**

- Globalizazioa, kontsumo arduratsua eta aisialdiaren arteko harremanak antzematea.
- Elikadura-subiranotasunaren hurbilketa teoriko-pratikoa.
- Kontsumo arduratsuaren eta jasangarritasunean oinarritutako alternatibak eraikitzea.

## EDUKIAK

- Globalizazioa eta interdependentzia globala.
- Kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza eta elikadura subiranotasuna aisialdian
- Jasangarritasuna gure praktiketan
- Alternatiba praktikoak: Baliabideak eta materialak.

## IKASTAROAREN EMAILEA

Jolas eta Ekin, Garapenerako Hezkuntza Baliabide Zentroa.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

7

## IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
4 ordu.

**EGUTEGIA**
Urtarrilak 30, asteartea.
16:00-20:00

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
Dohakoa.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

8

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Otsailak 3, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Haurrak espazio sortzaile

Haurren ikuspegitik... nola berreskuratu kalea? Eskubidez, nahi eta beharraz hitz egiteaz gain, haurtzaroaren kulturaz hitz egiteko espazioa izango dugu. Esperientziatik metodologietara salto egingo dugu, gure herrietan haurren ikuspegiei tokia uzteko.

## HELBURUAK

- Hirigintzaren gaineko irakurketa kritiko bat garatzea.
- Haurren parte-hartzearen inguruko eduki teorikoen hausnarketa egitea.
- Esperientzia ezberdinen berri ematea, eta gurean nola txertatu hausnartzea.

## EDUKIAK

- Zer da haurren parte-hartzea? Zein da hezitzaileon papera?
- Nork egiten du hiria, eta norentzat?
- Haurtzaroaren kultura.
- Haurrak espazio sortzaile izan diren esperientziak: nondik norakoak, erabilitako metodologia,...

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Parte hartzea ikuspegi feministatik

## HELBURUAK

- Parte hartzea ulertzeko beste modu bat aztertzea.
- Emakumeak parte hartzeko behar ditugun neurriak eta baldintzak aztertzea.
- Neskatilen parte hartzearen inguruko hausnarketa bultzatzea.

## EDUKIAK

- Zer da parte hartzea.
- Emakumeak ezberdin parte hartzen dugu? Zergatik?
- Parte hartzea eta feminismoa.
- Haurren parte hartzea- nesken parte hartzea.
- ...

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

9

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Otsailak 24, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

10

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Martxoak 10, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

# Heldu berriekin euskaraz murgiltzen

Euskarak, diglosi egoeran dagoen hizkuntza izanda, oraindik ez du euskal jendartean behar besteko presentziarik eta hori dela eta, gure herrira heltzen direnek, kalean erabiltzen den hizkuntza indartsuena ikasten eta erabiltzen dute, bertako askok egiten duten bezala.

## HELBURUAK

- Hezitzaileei, euskarazko baliabideak eskaintzea eta euskara sustatzeko estrategiak erakustea.
- Era ludikoan hizkuntza sustatzeko baliabideak eskaintzea.
- Kultur aniztasuna bidea izanik euskara zubia bilakatzea.

## EDUKIAK

- Euskara sustatzeko teknikak eta estrategiak.
- Auzokide berriei, gure hizkuntzan murgil daitezen bitartekariak.

## NORI ZUZENDUA

Euskaraz bizi nahi eta nahi hori gauzatu ahal izateko trebetasunak garatu nahi dituztenei zuzendua.

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

# Gizontasuna eta feminismoa

## 11

IKASTAROAREN FITXA

**IRAUPENA**
8 ordu.

**EGUTEGIA**
Martxoak 24, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

**LEKUA**
Bilbon.

**PREZIOA**
45 €.

**INFORMAZIO ZEHATZA**
www.urtxintxaeskola.eus

## HELBURUAK

- Maskulinitate eredu ezberdinak aztertu eta hauen inguruan gogoeta egitea.
- Gizonen eta feminismo ezberdinen inguruko harremanaz hausnartzea.

## EDUKIAK

- Gizonezkook eta espazio ez mistoak / feminismoen espazioak.
- Protagonismoa eta espazio politiko zein sozialen okupazioa.
- Gizonezkook eta indarkeria matxista / indarkeria sexista.
- Lan mundua: enpleguan eta enplegutik kanpo.
- Espazio propioa bilatu / espazio feministekin artikulatu.
- Identitate, subjektibotasuna, deseraikitze prozesuak eta gure posizioen azaltzea.
- Sexualitateak.
- Gizon izatearen pribilegioa. Nola kudeatu?

## TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

12

IKASTAROAREN FITXA

IRAUPENA
8 ordu.

EGUTEGIA
Apirilak 14, larunbata.
10:00-14:00 eta 15:30-19:30

LEKUA
Bilbon.

PREZIOA
45 €.

INFORMAZIO ZEHATZA
www.urtxintxaeskola.eus

# Patioak berramesten:

## haurren parte hartzea eta hezkidetza ikuspegitik

Botere harremanak ere ematen direla eremu fisikoen distribuzioan, eta honi eutsiko diogu 2 arlo ezberdinetatik: haur-heldu (espazio erabiltzaile-espazio sortzaile) botere asimetriatik eta genero sistemak dakarren botere asimetriatik.

### HELBURUAK

- Haurren parte-hartzearen eta hezkidetzaren inguruko eduki teorikoen hausnarketa egitea.
- Espazioen inguruko begirada berri bat, eta eraldatzaile bat garatzea.
- Haurren parte hartzerako tresna eta baliabideetara hurbilpena egitea.

### EDUKIAK

- Zer da haurren parte-hartzea? Zein da hezitzaileon papera?
- Zer da hezkidetza? Eta kurrikulm izkutua?
- Espazioen hausnarketa: nork egina? Norentzat? Eta nondik?
- Jolasa: mundua ikusteko era bat. Jolasaren bidez eragiteko tresnak.
- Jolastokien hausnarketa, eta esperientzia ezberdinak ezagutzea.

### TITULAZIOA

Urtxintxa Eskolak luzatutako agiria emango da.

2017-18 **Bizkaiko Urtxintxa Eskolako ikastaroak**

# Ikastaro labur edo luzeetan **izena emateko:**

- Begirale, Zuzendari eta Jendarte Kultur Dinamizatzaile ikastaroetan: **Nortasun agiriaren (NA) fotokopia eta argazki bat.**
- Ikastaro guztietan: **Ordain agiria.**

**KUTXABANK_ES54 2095 0233 10 9102257479**

**Irailaren 4tik 29ra arte** internetez, emailez zein bulegora hurbilduz.
Ikastaro laburretan hasi baino 7 egun lehenagora arte

**Bizkaiko Astialdi eta Suspertze Soziokulturalerako Eskola**
Zabalbide 26, behea. 48006 BILBO

BIZKAIKO urtxintxa eskola

matrikulazioa@urtxintxaeskola.eus | 94 432 04 45 | www.urtxintxaeskola.eus

## ERAKUNDE LAGUNTZAILE

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
gazteria juventud ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

# Tertangako **etxea**

## Aisialdian hazteko eta hezteko gunea

Tertangan (Araba) etxea kudeatzen dugu eta egonaldiak, barnetegiak eta dinamizazio bereziak antolatzen ditugu bertan. Kontsultatu aukerak **www.tertangakoetxea.eus** atarian edo **944320445** telefonoan.




42º 58' 34.24 " N
3º 1' 14.53 " W



www.tertangakoetxea.eus

tertanga etxea